

surfa • oholak egiten



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Gilak jartzean amaitzen da prozesua, eta surfean aritzeko prest daude oholak.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Hainbat kolore eta ikurrekin apaintzen dituzte.

Olatua hartu aurretik...

Oiertzungo Olatu enpresan bakoitzaren gustuen arabera egiten dituzte surf oholak

N.E./N.R. | OIARTZUN

Nahiz eta Euskal Herria Hawaiï ez izan, gure kostaldeko hondartzek surfean aritzeko aukera ederra eskaintzen dute. Olatu onak egon badaude, baina, horretarako, txoko misterioitsu eta aproposak bilatzen jakin behar da, Ibon Amatriain surflariaren arabera.

Oholen mundua ezagutzeko asmoz, Ibon Amatriain eta Pau-

lo Diazekin izan genuen hitzordua. Hondartzan izan ordez, lantegi batean ikusi genuen elkar, izan ere, gure helburua ez zen surfean egitea, oholak egiteko prozesua ikustea baizik. Eta, horregatik, Oiertzunen dagoen Olatu enpresaraino joan ginen.

Bertan, pausoz pauso oholek jarraitzen duten bidea ikusteko parada izan genuen. Lehendabiziko pausoa materiala *presha-*

pe izeneko makinan sartzea da. Bertan, itxura ematen zaio oholari. Guztiak igarotzen dira bertatik. Gutxi gorabehera makinak 20 minutu behar izaten ditu, baina ondoren, *shaper* bakoitzak bere erara moldatuko du. Prozesu hori ordenagailu bidez egiten da, zenbakizko kontrolaren bidez, eta kurbak oso zehatzak egiten dituzte; lehen, hori guztia eskuz egin behar izaten zuten.

Beraz, *preshape* makinan lana amaitu ondoren, *shaper*-en ardura izango da oholari forma egokia ematea. Horretarako, atzeritik hainbat lagun ekartzen dituzte Olatuko kideek.

Paulo Diaz surflariak adierazi digunez, «*shaper* onenak ekartzen ditugu, besteak beste, Hego Afrikatik Peter Daniels; Australiatik LSD eta Ameriketatik LOST markako kideak; eta Hawaiitik Johnston. Euskal Herrira etortzen dira, erosleek eskatutako oholak haien gustura egiteko».

Gutxi gorabehera, 2 edo 3 aste izaten hemen, eta 200 ohol inguru egiten dituzte, erosleek eskatutako ezaugarriak kontutan hartuta. Dendetarako ez ezik, banakoen enkargu asko jasotzen dituztela dio Diazek. Nonbait, oso garrantzitsua da norberaren arabeko ohol berezi bat egitea.

Azken ukituak eta uretara!

Oholari forma eman ondoren, poliesterra eta zuntza jartzen zaizkie oholei. Horren aurretik, orde, ohol batzuk margotu egingo dituzte. Zuntza emango diete lehendabizi, eta, jarraian, oihal bat jarriko diete, gogortzeko. Bi azpiko aldetik eta bat goiko aldetik. Gogortasuna lor-

PAULO DIAZ

Surflaria

«Munduko 'shaper' onenak ekartzen ditugu, norberaren gustuen araberako oholak egiteko»

OHOLAK

Bost urte inguru iraun dezake taula batek, baina, horretarako, derrigorrezkoa da ondo zaintzea

tu ostean, poliesterra emango diete. Poliesterra ongi lehortzen denean, oholak margoitzen dituzte, gustuko ikur eta marrazkiekin.

Azken ukituak eman baino lehen, gilak jartzen dituzte oholen azpian. Amaitzeko, laka eman ostean, urezko lixarekin oholak leuntzen dituzte, oholak abiadura handiagoa hartzeko.

Ohol batek 3 bat kiloko pisua du gutxi gorabehera, eta 5 urte iraun ditzake. Hainbeste urte irauteko, orde, garrantzitsua da behar bezala zaintzea, kolperik ez ematea eta zorro batean gordetzea. Izan ere, ohola pitzatu, eta ura sartzen zaionean ohola hondatu egingo da.

Ohola prest, beraz, uraren gainean ibiltzeko. Surfean ikastea soilik geratzen zaigu.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Forma eman ondoren, poliesterrarekin azken ukituak ematen dizkiote.